

# Blogaren aurkezpena

## Mintegi arteko lan tresna

Gifami bloga itzulpen mintegiko kideon lan tresna bat gehiago da, eta bere xedea da mintegi arteko denboran itzulpen arloko hainbat aztergai, proposamen eta zalantza lantzea.

## Blogaren aukerak

Gifami blogean itxura desberdineko artikuluak idatz ditzakezue, beraz. Adibidez:

### A) Artikuluak

- **Informazio soila.** Itzulpen arloari lotutako kontakizun objektibo bat. Zuen lanean itzulpenari lotuta egokitu zaizuen zerbait.
- **Iritzia.** Itzulpen gaiei buruzko hausnarketa pertsonalak, kritikak, blogaren irakurleoi zuzendutako galderak.
- **Idazlana.** Zuek landutako proposamen bat terminologiari, itzulpenari, estiloari eta abarri buruz.
- **Erreferentziak.** Beste nonbait irakurri duzuenaren erreferentzia eginez. Kasu honetan, ez kopiatu beste medio bateko testua zure artikuluan. Ahal dela, idatz ezazue artikulu orijinalaren Interneteko lotura, eta hari buruz komentatu behar duzuen komentatu.

### B) Iruzkinak

- Artikuluei erantzuna eman edo iruzkina egiteko aukera dago. Informazio osagarria baduzue, iritzi pertsonalen bat, zuzendu beharreko zerbait dagoela uste baduzue...